

# BASA Burua

170. ALEA - 2024KO UZTAILA

## BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA



[www.basaburua.eus](http://www.basaburua.eus)  
udala@basaburua.eus  
948 50 30 35

### EGUZKI PLAKAK JARRIKO DIRA POLIKIROLDEGIAN

Basaburuko Udalak lanak Elice Ingeniería enpresari esleitu dizkio. Horretarako, 35.263,03 euroko gastua onartu du obra egiteko eta 4.231,56 eurokoa proiektuaren diseinurako. Horietarako 27.646 euroko diru laguntza jasoko du Udalak. Lanak eskolaren ikasturte berria hasi baino lehen bukatu beharko ditu enpresak.

67 modulu jarriko dira osotara, 37,15 kw ekoiztu ahal izateko. Polikiroldegian jarriko dira baina udalaren beste eraikinak ere hornitzeko izanen dira: Oihanabal eskola, Ttikiiena haur eskola, Apeztegiberri, Txokolateroren etxea eta Osasun Etxea. Eguzki plaken bidez energia berriztagarriak bultzatu eta fakturan aurreztea nahi du Udalak.

### PLACAS SOLARES EN EL POLIDEPORTIVO

El Ayuntamiento de Basaburua instalará placas solares en el polideportivo para abastecer a los edificios municipales. Para ello, ha adjudicado las obras a la empresa Elice Ingeniería que contará con un presupuesto de 35.263,03 euros para los trabajos y 4.231,56 euros para el diseño del proyecto. Para ello, el Ayuntamiento, recibirá una subvención de 27.646 euros y la empresa deberá finalizar los trabajos antes de que se inicie el nuevo curso escolar.

En total se instalarán 67 módulos que permitirán producir 37,15 kw. Se colocarán en el polideportivo, pero también servirán para abastecer otros edificios municipales: el colegio Oihanabal, la escuela infantil Ttikiiena, Apeztegiberri, la casa Txokolatero y el Centro de Salud. El objetivo es impulsar las energías renovables y ahorrar en la factura.



# TURISMO JASANGARRIA BULTZATZEKO PLANA, AURRERA

MINCOTURek (Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa) deitzen duen Helmugako Turismo Jasangarrirako Planaz (HTJP) ari gara. Nafarroako Mendialdeari dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak Helmugako Turismo Jasangarrirako bost Plan (HTJP) kudeatzen ditu, tartean, Basaburuko. Hemen, bi proiektu bultzatuko ditu planak.


## BASO BABESLE BAT, JAUNTSARATSEN

Umeei zuzendua, mitologian eta baso sorginduan oinarritutako jostaketetarako gune bat izatea da asmoa. Oihan zabal basoa. Metro bateko altuerako egur harresi batek itxia, haritzak eta borobil formako harresi txikiak tartekatuko dira barruan. Udalak 49.997,3 euroko diru laguntza jasoko du lehenengo fase baterako.

## GUNE BERRI BAT, PASADERETAN

Anfiteatro gisara, borobil erdian zabalduko den espazioa izanen da. Ibai ertzean, zurezko oholtza bat ere jarriko da, uretarako sarbidea errazteko. Familiei zuzendutako toki lasaiago bat ahalbidetzea da helburua. Gainera, umeei zuzendutako jostaleku bat eta komun idor bat ere jarriko dira. 97.314,91 euroko diru laguntza jasoko du.

Plana eta proiektuak aurrera eramateko ekainaren 19an Cederna Garalur eta Nafarroako gobernuaren arteko hitzarmena sinatu zen. Orain, udal bakoitzarekin sinatuko dira, tartean, Basaburuko Udalarekin, lanen lehiaketa publikoa martxan jartzeko. Eskaintzak egiteko epea abuztuaren 30era bitartean ezarri du Udalak.



## EN MARCHA EL PLAN PARA IMPULSAR UN TURISMO SOSTENIBLE

Hablamos del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino (PSTD) que convoca anualmente MINCOTUR (el Ministerio de Industria, Comercio y Turismo). En cuanto a la Montaña de Navarra, la Asociación Cederna Garalur gestiona cinco iniciativas, entre ellas las de Basaburua. Aquí, el plan impulsará dos proyectos.

### UN BOSQUE PROTECTOR, EN JAUNTSARATS

Dirigido a niños y niñas, y en el bosque Oihan zabal, la idea es que sea un espacio de diversión basado en la mitología y el bosque encantado. Será un espacio cercado por un murete formado por maderas y de un metro de altura. En su interior se alternarán robles con pequeñas murallas vegetales semi-circulares. El Ayuntamiento recibirá una subvención de 49.997,3 euros para una primera fase.

### UNA NUEVA ZONA, EN LAS PASADERAS

A modo de anfiteatro, será un espacio que se extenderá en semi-círculo. En la orilla del río también se colocará una pasarela de madera para facilitar el acceso al agua. El objetivo es ofrecer un lugar más tranquilo para las familias. Además se habilitará un espacio de juego y un baño seco. Recibirá una subvención de 97.314,91 euros.

El 19 de junio se firmó el convenio entre Cederna Garalur y el Gobierno de Navarra. Ahora se firmarán con cada ayuntamiento, entre ellos el de Basaburua, que convocarán el concurso público para las obras. El plazo para realizar ofertas está abierto hasta el 30 de agosto.

## ETXEBIZITZA SOZIALETAKO BAT, ALOKAIRUAN

Basaburuko Udalak Jauntsaratsen dituen pisuetako bat libre gelditu da uztalean, eta, lehiaketa publiko bidez, alokairuan jarriko da, berriz ere. Hilaren bukaeran onartuko da baldintzen plegua eta eskaerak egiteko aukera irekiko da. Aukeren artean baloratuko da, emakumea eta 30 urte baino gutxiago izatea, seme-alabak edukitzea eta Basaburuan erroldatua izatea. Pisuak 62,61 metro karratu erabilgarri ditu, hurrengo bost guneetan banatuak: bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Informazio guztia eta argazkiak, udalaren webgunean, WhatsApp kanalean eta sare sozialetan.

## UNO DE LOS PISOS SOCIALES, EN ALQUILER

Uno de los pisos que el Ayuntamiento de Basaburua tiene en Jauntsarats queda libre en julio y se volverá a poner en alquiler mediante concurso público. A finales de mes se aceptará el pliego de condiciones y se abrirá el plazo para realizar solicitudes. Entre los solicitantes se valorará ser mujer, menor de 30 años y con hij@s a su cargo, además de estar empadronado en Basaburua. El piso tiene 62,61 metros cuadrados en uso distribuidos en cinco espacios: dos dormitorios, la cocina, el salón y el baño. Toda la información y las fotos en la web, en el canal de WhatsApp y en las redes sociales del Ayuntamiento.



Wapp kanala jarraitzeko /  
Para seguir el canal de Wapp



## UDALAK PEDIATRA ZERBITZUA BERMATZEKO ESKAERA EGIN DIO OSASUNBIDEARI

Ultzamako Oinarrizko Osasun eremuan ekainetik ez dago pediatra zerbitzurik. Anue, Lantz, Odieta, Basaburua eta Ultzamako udalek osatzen dute eremua eta larritzat jo dute egoera. Horregatik, alkateek egin dituzten bileretan, egoera salatzeko eta zerbitzua bermatzeko eskaria egiteko mozioa onartza erabaki dute. Basaburuko Udalak ezohiko batzarrean onartutako mozioan Fernando Domínguez kontseilaria eta Osasun Departamentuari Pediatría Zerbitzua ahalik eta lasterren martxan egon dadin, une honetan sortutako hutsunea betez eskatu dio. Eskaeran adierazten den bezala: Oinarrizko Osasun Eremu honetan 0-14 urte bitarteko 400 haur bizi direla. Egoera honen ondorioz, haur eta gazte hauen oinarrizko eskubide unibertsala, osasun zaintza, erabat urratua da.



Mozioa, osorik, udalaren webgunean.  
La moción, completa, en la web del Ayto.

## EL AYUNTAMIENTO HA PEDIDO A OSASUNBIDEA QUE GARANTICE EL SERVICIO DE PEDIATRÍA

La Zona Básica de Salud de Ulzama no cuenta con pediatra desde junio y los Ayuntamientos de Anue, Lantz, Odieta, Basaburua y Ultzama que conforman la zona describen la situación como grave. Por eso, los alcaldes y alcaldesas se han reunido y han decidido denunciar la situación y aprobar una moción para pedir que se garantice el servicio. En la moción aprobada en pleno extraordinario, el Ayuntamiento de Basaburua pide al consejero Fernando Domínguez y al Departamento de Salud que se ponga en marcha el servicio de Pediatría cuanto antes y explica en la petición que "En esta Zona Básica de Salud viven 400 menores de entre 0 y 14 años. De esta manera se infringe totalmente el derecho universal al cuidado de la salud de estos niñ@s y jóvenes".

## **TXOKOLATEROREN PROIEKTUAREN LANAK, ESLEITZEKO**

Uztailaren 20an AMA Arquitectural Office enpresak eguneko zentroko proiektuaren erredakzioa entregatu du, eta, abuztu bukaera bitartean lanen esleipenerako eskaintzak aurkezteko epea zabalik da.

### **LAS OBRAS DEL PROYECTO DE TXOKOLATERO, PARA ADJUDICAR.**

El 20 de julio la empresa AMA Arquitectural Office entregó la redacción del proyecto del centro de día. Ahora el Ayuntamiento abre el plazo para la adjudicación de las obras. Se pueden presentar ofertas hasta finales de agosto.

### **UKUILUAK ERE, HELPBIDEAZ BABESTURIK**

Baztango suhiltzaileek bultzatutako Google Mapsen antzeko aplikazioa da Helpbidea, 2021ean Basaburuko baserri eta etxe bakoitzari zenbakia bat egokitu zitzzion eta haren bidez larrialdi zerbitzuek biderik azkarrena bilatu dezakete aplikazioan. Orain, ukuiluaak ere sartu dira. Basaburuan bizi direnak bakarrak ez, hemen lan egiten dutenak ere babestea da helburua,



## **PERTSEIDAK IKUSTEKO AUKERA**

Basaburuko Udalak kontzejuei gonbitea luzatuko die, abuztuaren 12an argiak itzaltzeko, eta, horrela, herritarrek izar uxoak ikusteko aukera izan dezaten. Pertseidak ozar-izarrak dira, 10P/SWIFT-Tuttle kometak utzitako hauts-partikulak. Basaburuko Udalak argiak itzaltzena animatu nahi ditu kontzejuak. Aldi berean, herritarrek deitu nahi ditu, aukera aprobetxatu eta aulkia batekin, manta batekin eta bokata batekin kalera atera eta ikuskizunaz goza dezaten. Deialdia abuztuaren 12rako eginen da, baina eguraldiaren arabera aldatu daiteke.

### **LAS GRANJAS TAMBIÉN ESTARÁN PROTEGIDAS POR HELPBIDEA**

Helpbidea es una aplicación similar a Google Maps impulsada por los bomberos de Baztan. En 2021 las viviendas aisladas de Basaburua adquirieron un número mediante el cual los servicios de emergencia pueden consultar en la aplicación la manera más rápida de llegar. Ahora, entrarán también las granjas. Y es que el Ayuntamiento no solo quiere proteger a quién viven en el valle, sino también a quién trabaja aquí.



### **UNA OPORTUNIDAD PARA VER MEJOR LAS PERSEIDAS.**

El Ayuntamiento de Basaburua ha invitado a los concejos a que el 12 de agosto apaguen el alumbrado público de las localidades para que vecinos y vecinas tengan la oportunidad de ver mejor la lluvia de estrellas. Las perseidas se forman por las partículas de polvo que deja el cometa 10P/SWIFT-Tuttle. Para verlas mejor, el Ayuntamiento de Basaburua anima a los concejos a que apaguen el alumbrado; y a los vecinos y vecinas a que salgan a la calle con una manta y un bocata y que disfruten del espectáculo. La convocatoria se ha hecho para el 12 de agosto pero puede cambiar según la predicción metereológica.

### **MOZIOA / MOCIÓN:**

□□□□□□□□□□□□□□□□□□  
□□□□□□□□/ La moción en favor del colectivo LGTBQ+ en la web



## **EGUTEGIA/CALENDARIO:**

ABUZTU/AUGUSTO	1	2	3	4
5	6	7	8	9 10 11
12	13	14	15	16 17 18
19	20	21	22	23 24 25
26	27	28	29	30 31

- OROKETAKO PESTAK
- GARTZARONGO PESTAK
- JAUNTSARASKO PESTAK
- BERUETEKO PESTAK
- ERBITIKO PESTAK

IRAILA/SEPTIEMBRE	1
2	3
4	5 6 7 8
9	10 11 12 13 14 15
16	17 18 19 20 21 22
23	24 25 26 27 28 29
30	

- IGOAKO PESTAK
- IHABENGOKO PESTAK
- ITSASOKO PESTAK